

Itsasketako Gradua

Graduaren laburpena

Itsas garraioa baliabiderik erabiliena izan da historian **bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko**. Gaur egun ere ezinbesteko garraio modua izaten jarraitzen du, eta haren **alderdi tekniko guztiak** menderatuko dituzten profesionalak behar ditu.

Itsasketako Graduaren bidez, edozein industria instalazioren **gitsasoan** nahiz lehorrean **diseinu, mantenimendu eta operatibitatearekin lotutako ezagutzak** eskuratuko dituzu.

Azken mailan, nahitaez egin beharko dituzu 3 hilabeteko **praktikak** itsasontzian edo 600 ordu lehorrean enpresetako praktketan.

Gainera, espezializatzeko aukera izango duzu, ibilbide edo aipamen hauen bidez: Energia eta Propulzioa, eta Mantentze Lanak Industrian.

Itsasketako Gradua egin ondoren, nabigatu ahal izateko, **Merkataritza Ontzidiko Makineria titulu ofiziala** lortu beharko duzu, eta **Makineriako buru izateko, Itsas Ingeniaritza Masterra egin beharko duzu**.

Merkataritza Ontzidiko titulu profesionalak lortzeko, Itsasoko Gizarte Institutuaren **azterketa medikoa egin behar da**, nahitaezko urratsa merkataritza itsasontzietan praktikak egin eta zerbitzu profesionalak eskaintzeko.

Eskainitako plazak

60 plaza.

Gutxieneko nota

5 ezohiko deialdian.

Irakaskuntza mota

Ikasgelako Gradua

Hizkuntzak

Euskara, Gaztelania, Ingelesa.

- **OHARRA:** Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen. Informazio gehiago nahi baduzu kontsultatu ikasketa-plana.

Kualifikazio-maila

Titulu honek Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 2. maila du aitorturik; maila hori Kualifikazioen Europako Esparruko (EQF) 6. mailaren parekoa da, urtarrilaren 23ko 22/2015 Errege Dekretuak jasotzen duenez (BOE 2015/02/07).